

**IHOTEAK ETA KARROXA**

Badatuz Intxixuak eta Sorginak herrira! Otsailaren 22, 23 eta 24an asteburu osoko festa ospatuko dugu, eta guztion elkarlana behar dugu asteburua ahalik eta hoberen joan dadin. Ostiraleko eta igandeko ekitaldiak ez dira hasiko segurtasun neurriak bermatzen direla ziurtatu arte. Beraz, festa guztion gozagarri izan dadin, antolatzaileek emandako jarraibideak eta oharrak errespetatzea eskatzen dizuegu.

Bestalde, lyoteen historia izautzen al tzu? Sorgiñen, basandrin eta intxixun inguruan dena dakizula uste zu? Liburu honek xehetasun guztiyak kontatuko dizkigu herriko asteburu magikuan inguruan, Urratsen salgai do! Muttu bukatu miño lehen! 6 euron truke altxor zoragarri hau zuria izan datteke. Animatu! Gora iyotik! Azkenik hemen duzue asteburuko plagintza.

OSTIRALA 22

16:45 Burrenbaaa! Ihoteei deia! Beheko plazako biribilgunetik

17:30 Txokolatada Doneztebe plazan

19:00 Azeri dantza eta Sorgin dantza

19:30 Intxixu eta Sorginek plaza hartuko dute

Segidan, poteoa tabernaz taberna.

DENAK ZAKUZ JANTZITA!

LARUNBATA 23

9:00tatik aurrera auzoetan Kuestaziyua poxpolinez jantzita

14:30 inguru bazkaria auzo bakoitzak bere elkartean

18:00 auzoetan ibilitako koadrilak plazan elkartuko dira

Ondoren, musika eta festa giroa kataxuloko txozna inguruan.

IGANDEA 24

9:00 Diana txistulariekin

11:00 Beheko plazatik karroxa eta kalejira alai, Belutene, Euskal Herria plaza eta herriko plazara iritsi arte. Jarraian hamaiketako arkupetan.

19:00 Intxixu eta Sorginei agurra. Bukatzeko, suzko akerra.

GOGORATU KARROXA, ESKOLAKO PROIEKTUA DELA ETA DENON PARTE HARTZEA OSO GARRANTZITSUA DELA. MOMENTU EDERRAK ETA AHAZTEZINAK IGAROTZEN DITUGU. HURBIL ZAITEZTE!!!

BIGARREN EBALUAZIOA

Duela aste batzuk, gure eskolako klaustro bilera batean, ebaluazioen luzera ezberdina aztertu genuen. Urtero, gure egutegia ezberdina da eta honek, ikasleen ebaluazioak asko aldatu ditzake, batzuetan bi hilabetetara ez da iristen eta beste kasu batzuetan ia lau hilabetekoa da. Ikasleen hobe beharrez eta beraien ebaluaketa orekatze aldera, ikasturte 3 zati berdinetan banatu genuen iraupen bera izan zezaten. Beraz, 2018/2019ko bigarren ebaluaketa hurrengo martxoak 22an bukatuko da eta orduan jasoko dituzue zuen seme-alaben notak.

ZORRIAK

Mesedez ongi begiratu zuen seme-alaben buruak zorriak desager daitezen.

ASTELEHENA JAI

Datorren astelehena, otsailak 25, eskola itxita (HH eta LH) izango dugu Oiartzungo Ihoteak ospatzen baitira eta jai egingo baitugu.



OSTIRALEAN INAUTERIAK

Datorren ostiralean, inauteriak direnez, ikasle bakoitza nahi duen bezala etor daiteke jantzita.

KORRIKAKO ARROPA SALGAI!

Apirilaren 4tik 14ra KORRIKAREN 21. edizioa ospatuko da eta Oiartzundik apirilaren 12an, gauerdian pasako da. Hori dela eta bi jakinarazpenen berri eman nahi dugu. Batetik, arropa salmenta jarriko da herrian. Kolore biziz egindako elastiko eta sudadera bikainak daude, baita korri egiteko espezializatuak ere. Eskaintza paregabea da! Otsailaren 15etik martxoaren 1era Intxixu AEK euskaltegian izango duzue eskuragarri. Goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara.

Gainera, lhote festa dela eta otsailaren 22an plazan jarriko dute arropa postua. 4:30etatik 6:30etara bertan izango dira. Datorren astean ere bi salmenta puntu jarriko dituzte. Otsailaren 26an Haurtzaro Ikastolan jarriko dira arratsaldeko 4etatik 5etara. Eta asteazkenean, otsailaren 27an, Irubideko biribilgunean, esne makinaren ondoan. Ez galdu zure aukera eta mugitu, ez gelditu arroparik gabe!

Bestetik, kilometroen salmentaren berri eman nahi dute. Urteroko erosleez gain, erosle berriak bildu nahi dute Oiartzunen kilometroa erosteko; familian, lagunekin, lankideekin... korri egiteko aukera bikaina da. Animatu! Horretarako oiartzun@aek.eus helbidera idatz dezakezue.

Klika! Intxixu AEK euskaltegia



UDALEKUAK

2019ko udarako udalekuen deialdia zabaldu dute. Uztaila edo abuztuan, Abaigar, Goñi edo Bernedora joan nahi izanez gero, www.udalekuak.eus web orrian sartu bertan edukiko dituzue argibide guztiak.

Udalekuak



Informazio gehiago: www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta www.elizalde.eus

